

**2007ko urriaren 1ean UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA OHIZKOAREN AKTA.**

**Zk. 6**

---

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,30tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK :

- 1.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ
- 2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR
- 3.- MARIA JESUS ARRUABARRENA
- 4.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL
- 5.- ANTXON GOMEZ LORENTE
- 6.- JOXEMARI LIZARRALDE
- 7.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

**1.- Aurreko udalbatzaren Akta onartu**

Uztailaren 26ko Akta onartu du aho batez Udalbatzak.

**2.- Andatza auzoan urbanizazio lanak exekutatzeko Urbanizazio Proiekuta eta baldintza-ekonomiko administratiboen plegua onartu eta kontratazio espedienteari ekin.**

Alkateak urbanizazio proiektu zein pleguaren berri eman du, honako ezaugarriak azpimarratuz:

Proiektu egilea: INJELAN S.L.

Burutzeko epea: bi hilabete.

Lizitazio kopurua: 283.097.- euro ( BEZa kanpo )

Behin-behineko bermea: 5.662 .-euro.

Behin-betiko bermea: 11.324.-euro .

Eskaintzen aurkezpena: iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasi eta 13 egun naturaletako epearen barruan.

Balorazio irizpideak:

- % 60 eskaintza ekonomikoa
- % 20 baliabide tekniko eta pertsonalak
- % 20 exekuzio epea

**AKORDIOA:** Udalbatzarkideek ahobatez erabaki dute batetik, onartzea Urbanizazio Proiektua zein baldintza ekonomiko administratiboen plegua eta bestetik, kontratazio espedienteari ekitea, horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 13 egun naturalez jendaurrean jarriz akordio honen iragarkia.

### **3.- Herri bideen inbentarioan “ 8.7” erreferentziadun bidea desafektatzeko eskaria**

Ibarrola Beko baserri paretik igarotzen den 50 zentimetro zabaleko herri bidea desafektatzeko eskatu dute Ibarrol Bekoa baserrian bizi direnek. Idazkariak gaur egun Herri Bideen inbentarioa dagoen egoeran uztea derizkio egokien. Antxon Gomez zinegotziak ez du ondo ikusten desafekzio eskari hori. Eta azkenik, Igor Iturain Alkateak, ere ez du desafekziorako nahikoa arrazoirik ikusten.

**AKORDIOA:** Udalbatzarkideek ahobatez erabaki dute Aiako Herri Bide Inbentarioan jasoa dagoen “ 8.7” erreferentziadun 50 zentimetroko herribidea ez desafektatzea eta inbentarioan adierazi hala jasota gera dadin onartzea

### **4.- Alkate ebazpenen berri eman**

Idazkariak alkate ebazpenen berri eman du. Besteak beste, honakoak:

- 151/2007 Alkate Ebazpena,herriko jai batzordeari diru aurrerapena eginaz
- 152/2007 Alkate Ebazpena, ” Arizeta Talleres SL”-ri ordainduz frontoiaren beirazko itxiturako burdin lanengatik
- 153/2007 Alkate Ebazpena, kilometrajea ordainduz
- 154/2007 Alkate Ebazpena, Antonio Iruretagoiena Larrarte jaunari abala itzuliz
- 155/2007 Alkate Ebazpena, herriguneko saneamendu obraren barruan egindako lanengatik ordainketak eginaz
- 156/2007 Alkate Ebazpena, Armendi Gain eremuko drenaje obraren barruan egindako lanengatik ordainketak eginaz
- 157/2007 Alkate Ebazpena, igerileku konponketengatik ordainketak eginaz

- 158/2007 Alkate Ebazpena, “ Saint gobain Glass Control SL”-ri ordainduz Echeveste enpresaren 07/1045 fakturarekin konpentsatuz
- 159/2007 Alkate Ebazpena, “ Saint Gobain Glass control SL”-ri ordainduz frontoiaren itxituraren beiragatik.
- 160/2007 Alkate Ebazpena, obra lizentzia emanaz, Satxota eraikinean
- 161/2007 Alkate Ebazpena, lehen erabilera lizentzia emanaz, Sarobetxipi etxean
- 162/2007 Alkate Ebazpena, jarduera lizentzia emanaz, Ibarrola Bekoa kapoi hazkuntzarako
- 163/2007 Alkate Ebazpena, fidantza eskuratuz
- 164/2007 Alkate Ebazpena, abala exekutatzuz
- 165/2007 Alkate Ebazpena, Alustiza Bidaiak
- 166/2007 Alkate Ebazpena, kafe makina erosketa
- 167/2007 Alkate Ebazpena, abala exekutatzuz
- 168/2007 Alkate Ebazpena, jarduera lizentzia emanaz
- 169/2007 Alkate Ebazpena, jarduera lizentzia emanaz
- 170/2007 Alkate Ebazpena, hauteskunde ordainketak eginaz

#### **5.- Galderak eta eskaerak**

Ez dago.

Eta besterik gabe, bilkura bukatutzat eman da eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2007ko urriaren 30ean.

IGOR ITURAIN

ANDER ARRILLAGA

MAITANE ARRILLAGA ALDALUR

MARIA JESUS ARRUABARRENA

BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

ANTXON GOMEZ LORENTE

JOXEMARI LIZARRALDE

MARI KARMEN EGURZA AGIRRE

Itziar Azurtza-Sorrondegik,  
Idazkari-kontuhartzaileak.